

Gerra Zibilean, Francis Bartolozzi *Altavoz del Frente* Errepublikako Gobernuaren mendeko erakundean aritu zen propaganda alorreko lanetan: kartelak, eszenografiak, ilustrazioak... Sei akuaforte grabatzeko eskatu zioten, Parisko Erakusketa Unibertsaleko Espainiako Pabiloian erakusteko, 1937an. Egun Reina Sofía Arte Zentroa Museo Nazionaleko bildumakoak dira.

Eginkizun publiko horrekin batera, marrazki ugari egin zituen bere eguneroko mundua irudikatzeko. Horrexegatik dira hain marrazki originalak, arlo pribatukoak izateagatik eta atzeguardari lotutako gaiak jorratzeagatik. Propaganda helbururik batere ez dutenez, benetakotasun handiz eginak dira, oso dira zinezkoak. Francisek marrazki horiek bere oheko koltxoiaren azpian gordeak izan zituen hainbat urtez. Izan ere, 80eko hamarkada arte ez ziren jendaurrean erakutsi.

1936. urteko marrazkiak Madrilen egindakoak dira eta gerraren lehen uneak erakusten dituzte. Borrokara joateko prest dauden boluntarioak ageri dira haietan. Irudi sendoak dira, islatzen duten kemen nahiz adore guztia areagotzen duten plano eta marra geometrikoen bidez eraikiak. Bada marrazkien inguruko kontu bitxi bat: Francisek artean ez zekien bizitzen ari ziren hori Gerra Zibila deituko zenik, hortaz, irudien ondoko oharretan "iraultzari buruzko zirriborroak" izena eman zien.

1938an Valentzian marrazturiko milizianoen sailak, aitzitik, bestelako egoera bat erakusten du, frontetik itzultzen diren soldaduak ageri baitira. Irudiotan zaurituak azaltzen dira, gizon akituak, adorea galtutakoak, eta figuren keinu zein jarrereri indar itzela ematen dien hizkera geometriko berbera erabiltzen duen arren, marrazkiotan ezagun da porrota, ez da jada ageri lehenagokougarra.

Emakumeek are garbiago erakusten dute errepublikazaleen zorigaitza. *Desesperanza* eta antzeko marrazkiek alargunen eta senarrak frontean dituzten emakume abandonatuen bakardadea eta etsipena agerrarazten dituzte. Haien ondoan, fardelak, arropa eta etxeko tresnekin, gerraren hondamendiak dakarren exodoaren ikur. Azkenik, 1938tik 1939era bitarteko marrazkiek beste errealitate bat erakusten digute: emakumeak errazionamendua lortzeko ilaretan, Francisek berak Valentzia gero eta isolatuago hartan egunero bizi izan zuen egoera, alegia.

Teknika xumez egindako marrazkiak izan arren maisutasun handia erakusten dute. Francisek lapitzak edo lumatxoak erabiltzen ditu eszena zuzenak osatzeko, pertsonaiak, forma zehatz eta sendoekin eraikiak, lehen planoan jartzen dituela. Testuingururik gabe, gizakia bera da funtsezkoena, eta helburua, berriz, gizon-emakumeek gerran bizi dutena erakustea: sua eta garra, hasieran; zorigaitza, gero. Marrazketa espresionistaren teknikak aukera ematen dio gorputzak desitxuratu eta atal bereizgarri batzuk nabarmentzeko: oinak, eskuak, kokotsak... Horrez gain, handia da zuri-beltzen kontrastea, ez dagoelako ia-ia kolorerik. Baliabide horiei esker figurek errealitate fisikoaz gaindiko indarra hartzen dute eta giza sufrimenduaren ikur bihurtzen dira.